

ERAIKINA ERABAT SUNTSITU ZUEN SUTEA USTEKABEKO ARRAZOIENGATIK PIZTU ZELA DIOTE SUHILTZAILEEK

# Suak 210.000 etxetresna elektriko kiskali ditu Fagorrek Gasteizen duen biltokian

■ Sutea piztu zen unean 32 langile zeuden biltokiaren barruan, baina, kalte materialak ugari izan arren, ez zen inor zauritu

■ Garrak itzaltzen 25 suhiltzaile aritu ziren eta 9 ibilgailu erabili zituzten, eta ez zuten atzo goizaldea arte guztiz amatu

■ Galerak zenbatekoak diren zehatz-mehatz jakiteko denbora behar duela adierazi du enpresak, eta Jaurlaritzak laguntza eskaini dio

Erredakzioa / Gasteiz

HONDAMENDIAREN aztar-nak are ikusgarriagoak ziren atzo goizean, sutea itzali eta gero Fagor enpresak Gasteiztik gertu dagoen industria gunean duen biltokira bildu zirenak egiaztatu ahal izan zuten. Gasteizko Udaleko iturriek adierazi zuten, azken hamabost urteotan hirian enpresa batek izan duen ezbeharrik handiena izan da.

Ordu batzuk lehenago, gauez, sutea piztu eta erabat suntsitu zuen eraikina. Hasieratik, gogor jardun ziren suhiltzaileak, eta sua kontrolatzea azkar lortu bazuten ere, ez zuten hondamendia arintzerik izan. Guztira, 25 suhiltzaile eta 9 ibilgailu saiatu ziren sua amatazen. Suhiltzaileek eurek jakinarazi zuten faktorian «erabateko hondamendia» gertatu zela.

Arrazoiari dagokionez, istripu bat izan zela uste dute suhiltzaileek, eta sutea ustekabean piztu zela. Halakoe-tan, ohikoena tresnaren batean edo aire girotuan sortutako txinparta baten ondorio izatea dela gaineratu zuten.

Sutea hasi zen unean 32 behargin zeuden lantokiaren barruan eta inguruan zenbait kamioi eta haien gidariak. Hala ere, ez zen inor zauritu, eta, zorionez, kalteak materialak besterik ez dira.

## Galera handiak

Sua amatatzearekin batera, lehenbiziko balorazio ekonomikoan txanda iritsi zen. Fagor enpresaren arabera, kalteak oso handiak izan dira, 50.000 metro koadro baititu biltokiak, baina diru kopurua finkatzeko denbora gehiago eskatu du. Hala ere, suteak, guztira, 210.000 etxetresna elektriko inguru erraustu dituela jakinarazi zuen Fagorrek. Batez ere garbigailuak, hozkailuak, labe-



PEDRO VALBUENA -DAVID AGUILAR / EFE

Suhiltzaileek sutea azkar kontrolatu zuten arren, kalte materialak oso handiak izan ziren, biltegia erabat kiskali baitzen.

ak, berogailuak, galdara eta sukaldatzeko xaflak.

Fagorrek ziurtatu zuenez, sutearekin ez zen inolako gas isurketarik gertatu eta ez zen osasunarentzako arriskurik egon.

Ezer gutxi geratu zen biltokian sutearen ondoren. Kalte

txikienak bulegoetan izan ziren, eta handik zenbait ordenagailu eta berogailu atera zituzten atzo Fagorreko beharginek. Beste guztia, teilatua ere, guztiz kiskali zen.

Gasteizko biltokia Euskal Herrian eta Espainiako iparraldean Fagorrek egiten

duen banaketaz arduratzen zen. Hondamendia argia izan arren, lasai egoteko mezua bidali zuen enpresak. Gainerako faktoriak normal ari direla adierazi eta hornidura bermaturik dagoela ziurtatu zuen.

Josu Jon Imaz EAEko Industria sailburua biltokian

izan zen atzo goizean, eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza eskaini zion Fagor enpresari egoera ahalik eta arinen gaindi dezan. «Ziur nago Fagorrek gertatutakoa gainditu eta aberastasuna eta lana sortzen segiko duela», esan zuen Imazek.